



PROIEKTUAREN IZENA

Enplegu Sozialeko ekosistema egonkortuz


Proiektuaren sarrera

"Elkar-ekin Lanean enplegua sustatzeko eta gizarteratzeko eta laneratzeko" programako diru-laguntzen 2021eko deialdira aurkezten den proiektua HERNANIKO UDALAK aurkezten du, BETERRI BURUNTZA eskualdea osatzen duten udalen izenean, 2021eko urtarrilaren 26ko udal-lankidetzarako hitzarmenean ezarritakoa oinarri hartuta. Udal eskatzaileak paper instrumental hutsa betetzen du eskabide honetan; izan ere, BETERRI-BURUNTZA MANKOMUNITATEA eratze-prozesu beteain dago gaur egun, eta, hura martxan dagoenean, laguntzaren onuraduna aldatzeko eskatuko da, diru-laguntza eman bada, eta Mankomunitatea bera izango da titular berria, hari lotutako eskubide eta betebeharrak guztiak bere gain hartuko baititu.

Proiektuaren testuingurua eta justifikazioa

Eskualdean, Enplegu Soziala proiektuaren baitan, 2017-2018 bitartean Gizarte Zerbitzuen, Enplegu sailen eta Lanbideren arteko artikulazio prozesua eman zen, helburua bazterketa sozial egoeran -edo arriskuan- dauden pertsonen atentzio integrala eskaini eta beraien gizarteratzea eta laneratzea bermatzeko "Enplegu Sozialeko ekosistema" jarraikortu izatea izanik. Egitura honek, eskualdeko baliabide soziolaboral publiko, pribatu nahiz komutario ezberdinak (enplegu zentroak, formazio zentroak, enplegu programak, 3. sektoreko entitateak...) artikulatu eta optimizatzea bilatzen du eta nola ez, beharren arabera berriak martxan jartzea gobernantza publiko-privatu-komunitarioa oinarri.

BETERRI-BURUNTZA ESKUALDEAN PERTSONAK ARTATZEKO METODOLOGIA ETA TRESNAK



Marko honetan, eskualdeko Inserzio Soziolaboraleko Komisio Tekniko bat eta pertsonak artatzeko metodologia (irudian ikusgai) bat sortu, garatu eta inplantatu da. Bertan, harrera kanal ezberdinetatik (Gizarte Zerbitzuak, Enplegu saila, Lanbide edota 3. sektoreko entitateak) iristen diren eta bazterketa sozial egoeran dauden pertsonen diagnostikoa, sailkapena, ibilbide soziolaboralaren diseinua, orientazioa eta akonpainamendua egiten da. Ostean, diseinatutako ibilbide hori pertsonarekin kontrastatu eta onartzekotan ibilbidearekin hasten da pertsona. Komisio tekniko hau eta bertan garatzen den metodologia dinamizatzen jarraitzeko, sail ezberdinen arteko konektore lana egingo duen figura indartu nahi dugu, Inserzio Soziolaboraleko teknikaria.

2019an ekosistema hau egonkortu eta sistematizatzea lortu zen eta 2020 COVID19ak sortutako krisi eta alarma egoerari erantzutea lortu da elkarlan honi esker, inor atzean utzi gabe. Horretarako, besteak beste, alarma egoeraren ondorioz bertan behera gelditu diren baliabide soziolaboralak (Auzolan Berri II prelaborala, Auzolan Berri -Dependentzia kurtsoa-, Hotelgintza...) aktibatu eta baliabide eta zerbitzu berriak (Forma Gaitezen, orientazio eta bitartekaritza sarea, enplegua sustapen eta mantentzeko laguntzak...) martxan jartzea lortu da, beti ere, ekosistemako entitateen arteko elkarlana oinarri.

2021a errekupeazio urtea izatea nahi dugu, COVID19ak eragindako gizarte haustura gainditu, desberdintasun sozialak irauli, zauriak itxi eta gizarte kohesionatu baterako bidean lanean jarraitu nahi dugu inklusioaren bidez.

Hobetu nahi den egoeraren deskribapena

Hurrengo hiru lerroetan egin nahi dira hobekuntzak:

- a) COVID-19ak sortutako osasun krisi eta krisi ekonomikoaren eraginak irauli. Alde batetik, enplegua galdu berri duten pertsonen enpleguratzea sustatu eta bestetik, egoera zaurgarrienean dauden pertsonentzako baliabide soziolaboralak aktibatu nahi dira. Horrez gain, azken urte honetan inklusiorako gobernantza ekosistemak izan duen hurbiltasun falta berrartu nahi da, berriz ere entitate eta eragileen arteko harremanak berrindartzea bilatuz.
- b) Bazterketa sozial egoeran – edo arriskuan – dauden pertsonen arreta hobetu pertsonak artatzeko esku hartze metodologiaren bidez. Gehienetan, zaurgarritasun egoeran aurkitzen diren pertsonen hainbat profesional erreferente (gizarte langilea, Lanbide-SVEko orientatzailea, kale hezitzailea...) izaten dituzte eta ez dute elkarren arteko harremanik izaten. Proiektu honen bitartez sistema ezberdinen arteko lotura eta koordinazioa egitea bilatuko da pertsonen arreta hobetzeko helburuarekin.
- c) Gizarteratze eta laneratze ibilbideei jarraikortasuna eman ber-orientazio zerbitzuaren bitartez. Ibilbide hauetan dauden pertsonak askotan baliabide/programa soziolaboral konkretu batera orientatzen dira, bere ibilbidea edota pertsona horrekin egin beharreko lanketa hor bukatzeko delatuz. Hala ere, kalitatezko enplegu bat lortu eta mantentzeko gaitasun nahikoak bereganatu ezean, pertsonen ibilbide soziolaborala babestu behar dela ulertzen dugu. Izan ere, kasu batzuetan pertsonak baliabide hauetatik irtezean egoera berera itzultzen dira edota beraien egoerak okerrera egiten du. Ondorioz, uste dugu zerbitzu honen bitartez ibilbideei jarraipena ematea lortuko dugula.
- d) Gure esperientziaren arabera, zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen lan baldintza kaxkarrak izaten dituzte enpleguratzean, enplegarritasun eta kualifikazio maila baxua izaten baitute eta ondorioz, lan baldintza okerrenak dituzten sektore ekonomikoetan bukatzeko dute. Egoera honi buelta emateko inklusio tresnak sustatu nahi dira.

Helburuak

Helburu orokorrak:

- COVID-19ak sortutako osasun krisi eta krisi ekonomikoaren eraginak irauli, Enplegu Sozioaleko ekosistema indartuz eta baliabide soziolaboral berriak aktibatuz.
- Bazterketa sozial egoeran edo arriskuan dauden pertsonen kalitatezko enplegua lortu.
- Inklusiorako Inteligentzia publikoko laborategiari (prospekzio sistema) jarraikortasuna eman.
- Eskualdeko ekoizpen beharrei edo profilei egokitutako gizarteratze eta laneratze programak aktibatu.
- Gizarteratze eta laneratze programen eragikortasuna eta emaitzak hobetu.
- Pertsonak artatzeko metodologiaren jarraipena eta koordinazioa egin.
- Eskualdeko kohesio soziala sustatu eta indartu.

Helburu espezifikokoak:

- COVID 19ak agerian utzi dituen arrakala sozial eta digitalei aurre egiteko baliabideak aktibatu.
- Gizarteratze eta laneratze programetan (Proiektu singularrak, Tokiko Enplegu Ekintzak, Hazilan, Txertatu Merkatuan...) dauden pertsonen jarraipena eta akonpainamendua koordinatu eta bermatu.
- 2020an gizarteratze eta laneratze programetan parte hartu duten pertsonen berrorientazio zerbitzua eskaini ibilbide soziolaboralei jarraikortasuna emate aldera
- Gizarteratze eta laneratze programen laneratze emaitzak hobetu.
- Gizarteratze eta laneratze programetan parte hartzen duten pertsonen lan baldintzak hobetu (kalitatezko enplegua) laneratzea lortzeko.
- Gizarteratze eta laneratze programetan parte hartzen duten pertsonen esku-hartzeak koordinatu.
- Inerzio soziolaboraleko komisio teknikora iristen diren pertsonen kalitatezko atentzio integrala bermatu pertsonak artatzeko esku hartze metodologiaren bidez.



GARATUKO DEN PROIEKTUA

Garatuko den proiektuaren eta ekintza nagusien deskribapena

Enplegu Sozialeko berraktibazio planean, orain arte martxan genituen baliabide soziolaboralak aktibatzeaz gain, beste hainbat ekimen garatzea da asmoa. Besteak beste hurrengo lau lerrotan:

- 1) **Enplegu Sozialeko ekosistema berrindartu.** COVID19aren ondorioz, ekosistemako eragileen arteko harremanak hozten joan dira, nahiz eta elkarlanari jarraikortasuna eman. Lan lerro honen helburua ekosistemako eragileen arteko interakzioa sustatu eta harremanak berrartztea izango da. Beti ere, beharrezkoak diren neurriak hartuz edo pandemia egoerari bilakaerari erreperatuz.
- 2) **Konektore lana eta pertsonak artatzeko esku hartze metodologiari jarraipena eman.** Inserzio Soziolaboraleko komisiok teknika helarazten diren pertsonen diagnostikoa, sailkapena, ibilbide soziolaboralen diseinua eta jarraipena koordinatzea izango da proiektu honen beste ekinbideetako bat. Enplegu Sozialeko egituraren (1.irudia) bitartez eskualdeko gizarte zerbitzuak, enplegu sailak eta Lanbide-SVE artikulatzea lortu da eta hiru sailen elkarlanetik “pertsonak artatzeko metodologia” (2.irudia) diseinatu da. Metodologia honen garapenerako sail edo sistema ezberdinen arteko konektore lana egitea ezinbestekoa dela ulertzen dugu. Era honetara, pertsonen arreta integrala eta jarraia bermatu eta kalitatezko enpleguratzea ahalbidetzeko.
- 3) **Inklusio tresnen sustapena:** Kalitatezko enplegua sortzeko helburuarekin, azken hiru urteetan bi inklusio tresna sortu ditugu eskualdean. Lan lerro honen helburuan merkatu publikoan nahiz pribatuan prospekzio bidez identifikatzen diren lan aukera tresna hauetara bideratzea izango da. Geroz eta lan bolumen gehiago bideratu inklusio tresna hauetara, geroz eta inklusio prozesu gehiago eta kalitatezko enplegu gehiago izango dugu eskualdean. Hurrengo bi tresnen sustapena egitea izango da asmoa:
 - a) **BETERRI ERROTUZ S.L.U** Beterri-Buruntza Udalak (Astigarraga, Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Usurbil eta Urnieta) eta Erroak Sartu Gizarteratze Elkartearen elkarlanetik sortutako irabazi asmorik gabeko laneratze enpresa da. Hainbat diagnostiko eta ikerketa egin ondoren eskualdean bazterketa egoeran – edo arriskuan- dauden pertsonak gizarteratuko dituen egitura egonkor bat behar zela ondorioztatu zen, eta 2017an Enplegu Sozialeko plan estrategikoaren baitan laneratze enpresa bat sortzeko prozesua abiaratu zen. Enpresa honek, bazterketa sozial egoeran dauden edota lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsona langabeen gizarteratze eta laneratzea du xede. Enplegu inklusiboaren bidez, gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen gizarteratze eta laneratzea du helburu eta baliabide honetan sartzen diren pertsonen, gutxienez urte beteko kontratazioa egiten zaie eta gehienez hiru urtera arte luzatzen da kontratazioa. Gainera, kontratazioak dirauen bitartean pertsonari formazioa eta etengabeko jarraipena eta orientazioa eskaintzen zaio eta azken helburua kontratazio epea bukatzean pertsona lan merkatu konbentzionalen txertatzea da.
 - b) **MAITELAN KOOPERATIBA** Beterri-Buruntza Udalak (Astigarraga, Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Usurbil eta Urnieta) eta **AHMER-SOS** Racismoren elkarlanetik sortutako gizarte ekimeneko eta irabazi asmorik gabeko kooperatiba integrala da. Zaintzaren eta mendekotasunaren sektorearen errealitatea ezagutzeko hainbat diagnostiko eta ikerketa egin ondoren, eskualdean sektore honetan lan egiten duten eta bazterketa egoeran – edo arriskuan- dauden pertsonak gizarteratu eta laneratuko dituen egitura egonkor bat, inklusio tresna bat, behar zela ondorioztatu zen, eta 2017an Enplegu Sozialeko plan estrategikoaren baitan zaintza eta mendekotasunaren sektorean lan egiten zuten pertsonekin kooperatiba bat sortzeko prozesua abiaratu zen. Horrela, 2019an AMHER-SOS Racismoren inguruan biltzen zen emakume etorkinen taldearekin kooperatiba bat martxan jartzeko prozesua fasilatu zen Beterri-Buruntza Udaletatik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantzazioari esker. Urte beteko prozesuaren ostean 2020ko



martxoan kooperatiba sortu eta martxan jartzea lortu zen eta Maitelanen helburu bezala pertsoneri arreta eta zaintza nahiz garbiketa zerbitzuak eskainiz inklusio soziolaborala lortzea zela ezarri zen, beti ere, Kooperatibako langile eta erabiltzaileok protagonista izanik eta denen beharrak erdigunean jarritz.

4) **Baliabide soziolaboralen aktibazioa:**

- a) **Berrorientazio zerbitzua martxan jarri.** Gizarte eta laneratze programetan parte hartzen duten pertsoneri eskainiko zaien zerbitzua da. Eskualdean martxan jarri diren gizarteratze eta laneratze programak amaitu ahala, pertsonen ibilbide profesionaleri jarraikortasuna emateko sortzen den orientazio zerbitzua da. Bi helburu betetzen ditu: a) Gizarte eta laneratze-programen balorazioa egin; b) Pertsona bakoitzaren ezagutza indibidualak eta parte hartzaileak lan mundura ber-orientatu eta bideratzeko ekintzak.
- b) **Auzolan Berri programari IV edizioa martxan jarri.** 2017an Enplegu Sozialeko Mahai Iraunkorrean gizarte zerbitzuetako perfilentzako exigentzia maila baxuagoko baliabide soziolaboralak behar zirela adierazi zen eta eskualdeko bost udaletako gizarte zerbitzuak baliabide ekonomikoak jartzeko prest azaldu ziren. Enplegu Sozialetik baliabide ekonomikoa hauek bateratu eta programa martxan jarri ahal izateko hitzarmen bat prestatu zen. 2018ko abenduan bost udalen (Astigarraga, Andoain, Hernani, Usurbil eta Urnieta) artean Auzolan Berri hitzarmen sinatu zen, hurrengo lau urteetan gizarteratze eta laneratze baliabideak martxan jartzeko 52.875 €-ko ekarpen ekonomikoa egiteko konpromisoa hartuz bost udalek (211.500 € 4 urtetan). 2018tik Auzolan Berri programaren hiru edizio egin dira eta Enplegu Sozialetik urtez urte baliabide soziolaboralo hauen diseinu, garapen eta koordinazio lana asumitu da. Hiru edizio hauetan Erroak Sartu Gizarteratze Elkartearekin elkarlana gauzatu dugu eta honi esker urtez urte Auzolan Berri programaren barnean baliabideak bikoiztea lortu dugu, gizarteratze eta laneratze plazak bikoiztuz. 2021an Auzolan Berri programaren IV edizio bat martxan jartzea da helburua.

Garatuko diren Zereginak eta Azpizereginak

1. Zeregina: Proiektuaren abiaraztea, kudeaketa, jarraipena eta kontrola

Deskribapena:

Eragile ezberdinen arteko koordinazioa eta zuzendaritza eraman.

Helburua:

- Proiektuaren koordinazio orokorra: teknikoa eta administratiboa (ekonomiko-finantzariora)
- Barruko komunikazioa
- Ikuspegi globala eta proiektuaren helburuak mantentzea
- Lanaren antolaketa eta jarraipena
- Kontingentzien kudeaketa eta konponbidea
- Justifikazioa (teknikoa eta administratiboa) eta harreman instituzionalekin harremanetan
- Proiektuaren garapena eta ezarpena ebaluatzea

Azpizereginak:

- Z1.1: Proiektuaren koordinazio orokorra
- Z1.2: Barne komunikazio eta koordinazioa orokorrerako bilerak
- Z1.3: Sistematizazio eta azterketa
- Z1.4: Azken ebaluazioa

Entregagaiak:

- Eskaera
- Zuriketa txostena

Parte hartzaileak:

- Eskualdeko koordinatzailea (Nerea Yurrebaso): 60 ordu
- Eskualdeko Enplegu Mahaiko dinamizatzailea (Hilario Dorronsoro): 40 ordu
- Kanpo pertsonala: Inserzio Soziolaboraleko teknikaria, 73 ordu

2. Zeregina: Zereginen prestaketa, diseinua, kanpo pertsonalaren azpikontratazioa eta jarraipena

Helburua:

- Proiektuaren garapenerako zerbitzuaren kontratazioa
- Proiektuaren garapenerako zeregin eta materialak prestatu

Azpizereginak:

- Z2.1: Kanpo pertsonalaren zereginen prestaketa
- Z2.2: Lan administratiboa.
 - Kanpo pertsonalaren (3. sektoreko entitateak) azpikontratazioa.
 - Deialdiarekin lotutako kudeaketa administratiboa.

Parte hartzaileak:

- Eskualdeko koordinatzailea (Nerea Yurrebaso): 40 ordu



- Kontratazioa egingo duen udalaren teknikaria (Astigarragako Udala/ Jaione Iranzu): 40 ordu

3. Zeregina: Enplegu Sozialeko ekosistema berrindartu: Dinamizazio lana

Deskribapena:

COVID19aren ondorioz, Enplegu Sozialeko ekosistemako entitate publikoen eta eragile publiko nahiz pribatuen arteko harremanak hozten joan dira. Elkarlanak eta inklusio sarearekiko konpromisoak hor jarraitu du baina interakzioa maila asko jaitsi da. Hortaz, Enplegu Sozialeko ekosistemako entitate eta eragileen arteko harremanen dinamizazioa sustatu nahi dugu, elkarrekin harremantzetik sortzen baitira baliabide eta zerbitzu soziolaboral berriak edota elkarlanerako proiektu berritzaile berriak. Lan lerro honen helburua ekosistemako eragileen arteko interakzioa sustatu eta harremanak berrartzea izango da beraz. Beti ere, beharrezkoak diren neurriak hartuz edo pandemia egoerari bilakaerari erreparatuz. Izan ere, Inklusioaren esparruan lan egiten duten eskualdeko agente publiko, pribatu eta komunitarioak artikulatzeko azken urteetan eraiki dugun Enplegu Sozialeko ekosistema koordinatu, sinergiak dinamizatu eta harremanak egonkortzea izango da ekintza zentrala. Ekosistema eta bere gobernantza eredia baitira proiektu hau aurrera eramateko oinarria.

Helburuak:

- Enplegu Sozialeko ekosistemako entitate eta eragileen arteko harremanak dinamizatu, interakzioa sustatu.
- Elkarlananean oinarritutako proiektu eta egitasmo berriak identifikatu eta dinamizatu.

Azpizereginak:

- Z3.1: Enplegu Sozialeko Mahai Iraunkorra dinamizatu eta koordinatu.

- Z3.2: Eskualdeko langabeziaren eta bazterketa sozialaren gaineko azterketa soziodemografiko bat garatu inklusioaren esparruan lan egiten duten entitate eragileekin elkarbanatzeko nahiz gobernantza publikoko mahaietan inklusio politikak berorientatzeko.

- Z3.3 Bazterketa sozial egoeran dauden pertsonekin lan egiten duten eragile sozialekin eat 3. sektoreko entitateekin harremanak berrartu.

- Z3.4: Eskualdeko baliabide soziolaboral publiko, pribatu nahiz komunitarioen mapeo bat egin eta tresna informatiko bateratu batera igo guztiak. Inklusioaren esparruan lan egiten duten profesionalentzako tresna informatikoa izango litzateke.

- Z3.5: Enplegu Sozialeko ekosistemako agente publiko, pribatu nahiz komunitarioei baliabide soziolaboralen maparen berri eman: gizarte zerbitzuak, 3.sektoreko entitateak, Lanbide Heziketak, *AMHER-Sos Racismo...*

Parte hartzaileak:

- Eskualdeko Enplegu Mahaiko dinamizatzailea (Hilario Dorronsoro): 40 ordu

- Eskualdeko pertsonaren lanketaren arduraduna (Rosa Hernández): 20 ordu

- Eskualdeko baliabide diseinuaren arduraduna (Josune Mujika): 20 ordu

- Kanpo pertsonala: Inserzio Soziolaboraleko teknikaria 311 ordu

4. Zeregina: Konektore lana eta pertsonak artatzeko esku hartze metodologiaren dinamizazioa: Inserzio Soziolaboraleko komisio teknikora helarazten diren pertsonen diagnostiko integrala, bilbide soziolaboralen diseinua eta jarraipena dinamizatu eta koordinatu

Deskribapena:

Inserzio Soziolaboraleko komisio teknikoan Lanbideko orientatzaile eta gizarte langileen laguntzarekin pertsonak artatzeko metodologia aplikatzen ari da. Hau dela eta, kanpo pertsonalaren zeregin nagusietako bat eskualde mailan martxan jarri dugun "Pertsonak artatzeko metodologia" berria kudeatzen laguntzea izango da eta gizarte langileen eta Lanbideko orientatzaileen arteko konektore lana egitea pertsonen jarraipenean. Inserzio Soziolaboraleko teknikariak eskualdean artatzen diren pertsonen gaineko ikuspegi orokorra izan beharko du eta guzti horren erregistroa eraman.

Helburua: Inserzio soziolaboraleko komisio teknikora iristen diren pertsonen, beraien gizarteratze eta laneratzean laguntzeko, atentzio integrala eskaintzea bermatu.

Zereginak:

- Z4.1: Inserzio Soziolaboraleko Komisio teknikoan parte hartu eta idazkaritza teknikoa eraman.

- Z4.2: Harrera kanaletatik iristen diren pertsonen diagnostiko soziolaborala eta sailkapena egiteko asistentzia teknikoa eman gizarte langile eta enplegu orientatzaileei.

- Z4.3: Ibilbide soziolaboralean zehar pertsona hauei akonpainamendua, orientazioa eta jarraipena egin.

- Z4.4: Komisio teknikotik pasa diren pertsonen erregistroa eraman TGA net tresnaren bitartez.

Entregagaiak:

- Inserzio Soziolaboraleko komisio teknikoaren deialdiak eta aktak.

Parte hartzaileak:

- Kanpo pertsonala: Inserzio soziolaboraleko teknikaria 818 ordu

5. Zeregina: Prospekzioa eta inklusio tresnen (Beterri Errotuz eta Maitelan) sustapena

Deskribapena:

Baliabide soziolaboral konbentzionalez gain, inklusioa xede duten Lurralde Garapenerako proiektu komunitario berriak sustatu ditugu eta horri esker, azken urteetan eskualdeko baliabide publikoen bolumena eta gaitasuna hirukoiztu dugu.



Proiektu hauek sustatzeko, bereziki bi merkatu nitxotan egin genuen lan, zaintzaren merkatua eta ingurumen merkatua. Zaintzaren krisiak eta zaintzen kate globlak eragindako pertsona migratuen zaugarritasun egoerei aurre egiteko Maitelan Koop. zaintza kooperatiba integrala sortu zen. Beste aldetik, ingurumenaren esparruan, prospekzio publikorako foroari eskeri, Erroak Sartu Gizarteratzeko elkartearekin elkarlanean Beterri Errotuz SLU laneratze enpresa sortu genuen.

Lan lerro honen helburu nagusia garapen endogenoa eta lurralde kohesioa sustatzea da eta egitasmo honekin bilatzen dena prospekzio (publiko-privatu-komunitarioa) sistema ezberdinetatik lortzen diren datuak informazio bilakatzea da, ostean azken urteetan sortu diren bi inklusio tresnen bitartez kalitatezko enplegu endogenoa sustatzeko sektore prekarizatuenetan (ingurumena eta zaintza). Lan lerro honen helburua merkatu publikoan nahiz pribatuan prospekzio bidez identifikatzen diren lan aukera tresna hauetara bideratzea izango da. Geroz eta lan bolumen gehiago bideratu inklusio tresna hauetara, geroz eta inklusio prozesu gehiago eta kalitatezko enplegu gehiago izango dugu eskualdean. Hurrengo bi tresnen sustapena egitea izango da asmoa.

Helburua:

- Enplegu aukera berriak identifikatu (prospekzioa) eta inklusio tresnen bitartez trakzionatzea
- Ehun enpresarialaren eta inklusiorako gizarte politiken arteko lotura egin
- Ehun sozialaren (foro sektorialak) eta inklusiorako gizarte politiken arteko lotura egin

Zereginak:

- Z5.1: Enpresa Sozialki arduratsuekin prospekzioa: a) Enpresen beharrak eta kontratazio profilak ezagutu. b) Enpresekin elkarlanean lan prestakuntzako programak martxan jartzea aztertu.

-Z5.2: Prospekzio komunitarioa: Kolektibo bakoitza ordezkatzan duten eragile sozialekin (AMHER, kolore guztiak, Bilgune Feminista,...) bildu eta kolektibo bakoitzaren errealitatea eta beharrak ezagutu.

- Z5.3: Prospekzio emaitzak kudeatu eta inklusio tresnen bitartez trakzionatu.

-Z5.4: Enplegu Sozialeko ekosistemaren eta inklusio tresnen arteko koordinazioa egin.

- Z5.5. Eskualdeko analisi soziodemografikoa egin.

Entregagaiak:

- Eskualdeko enpresen ekoizpen profila jasotzen duen informea.

- Eskualdeko analisi soziodemografikoa

- Lurralde Garapenerako proiektu komunitario berriak (laneratze enpresa eta zaintza kooperatiba kasuko) martxan jartzeko aukerak identifikatzea

Parte hartzaileak:

- Eskualdeko Enplegu Mahaiko dinamizatzailea (Hilario Dorronsoro): 80 ordu

- Kanpo pertsonala: Inserzio soziolaboraleko teknikaria: 148 ordu

6. zeregina:

Deskribapena: baliabide soziolaboralen aktibazioa

COVID19ak eragindako krisi ekonomikoak nabarmen eragin du lan merkatuan, eta batez ere sektore prekarizatuenetan. Langabezia igoera etengabearen aurrean eta ERTE edota EREN kopuruak ikusirik, enplegua mantedu eta sustatzeko baliabideak aktibatu behar ditugula argi daukagu.

Aktibazio hori eman dadin, dagoeneko, gure eskualdean identifikatzen diren pertsonen behar formatibo zein laboralak identifikatu ditugu. Eta hori ardatz nagusi izanik, hurrengo urtean martxan jarri nahi ditugun baliabide soziolaboralen diseinuarekin hasi gara. Esaterako, EAGI ikastetxearekin harremanak berrartu ditugu, hots, haiek duten lan-eskaera ezagututa eta eskualdeko pertsonen beharrak ere ezagututa, bi alderdiak bateratuko dituen baliabide bat aktibatuko dugu, lurraldearen beharretara egokitutako baliabide bat eskaini ahal izateko. Gainera, ildo beretik jarraituta, hirugarren sektoreko erakundeekin jardun dugu, hala nola Sutargi, Erroak Sartu edo Ede Fundazioarekin.

Horregatik, baliabide soziolaboralen aktibaziorako beharrezko tresnak eta programak berraktibatu behar dira: Auzolan Berri IV programa eta Berrorientazio zerbitzua.

Helburuak:

- Kualifikazio maila baxua duten pertsonak formatzeko pizgarriak aktibatu.
- Gizarte eta laneratze programetan parte hartzen duten pertsonen ibilbide profesionaleri jarraikortasuna eman

Zereginak:

- Z6.1: Auzolanberri IV diseinu teknikoa egin

- Z6.2: Eskualdeko gizarte zerbitzutako erabiltzaileen profila eta beharrak identifikatu

- Z6.3: Eskualdeko zentro formatibo zein erakundeen eskaintza formatiboa zein den ezagutu

- Z6.4: Iazko gizarte eta laneratze programen balorazio egin

- Z6.5: Iazko gizarte eta laneratze programetan parte hartu duten pertsona bakoitzaren ezagutza indibidualak eta parte hartzaileak lan mundura ber-orientatu eta bideratzeko ekintzak martxan jarri.

Parte hartzaileak:

- Eskualdeko baliabide diseinuaren arduraduna (Josune Mujika): 60 ordu

- Eskualdeko Enplegu Mahaiko dinamizatzailea (Hilario Dorronsoro): 40 ordu
- Kanpo pertsonala: Inserzio soziolaboraleko teknikaria: 220 ordu

Kronograma

ZEREGINAK	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11	12	13	14	15
1.zeregina (173 ordu)	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
2.zeregina (80 ordu)				x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
3.zeregina (391 ordu)					x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
4. zeregina (818 ordu)	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
5. zeregina (228 ordu)					x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
6. zeregina (320 ordu)					x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x

Aurreikusitako hasiera data: 2021eko urtarrilaren 1a

Aurreikusitako amaiera data: 2022ko martxoaren 31a

Proiektuaren bat egitea lurraldeko, eskualde/tokiko eta/edo eskualdeko enplegu garapenerako estrategiarekin

Proiektu hau Enplegu Sozialetik (1.irudia) sortzen da, eskualdeko enplegu estrategia artikulatzen duen programa, eta lotura zuzendu eskualdeko Tokiko Garapenerako eta Sustapen Ekonomikoko estrategiarekin. Proiektu honen potentzialitate nagusia hor kokatzen da gainera, inklusiorako gizarte politiken garapena gainontzeko estrategiekin artikulatua egotean. Sustapen ekonomikoaren baitan enpresa zerbitzuak kudeatzen duen informazio guztia (enpresen kontratazio beharrak, eskualdeko ekoizpen profila...) gizarte politiken diseinuan kontuan izatea esaterako.

Genero ikuspegiaren txertaketa proiektuaren diseinu eta garapenean

Gizarteratze eta laneratze ibilbide eta programetan oso maiz emakumeak lanbide profesional edo sektore ekonomiko konkretu batzuetara bideratzen dira eta gizonezkoak beste batzuetara. Sexuaren arabera lan banaketaren erreproduzioa sustatzen da hein handi batean inklusio prozesuetan ere eta joera hau orekatzen saiatu beharko gara. Gure kasuan, programa edo baliabide soziolaboral konkretu batzuk, “*Hotelgintzako proiektu singularra*” kasuko, guztiz feminizatuak daude, parte hartzaile guztiak emakumezkoak dira, eta “*TEE: Lan anitzetarako operario taldea*” programan ordea ia guztiak gizonezkoak. Ez da arazo bakarria ordea, emakumeek askotan ezin izaten dute gizarteratze eta laneratze programetan parte hartu kontsiliazioa dela medio.

Proiektu honen garapenean genero ikuspegia kontuan izateko, pertsonen orientazioa egiteko orduan sexuaren arabera lan banaketa hau orekatzen saiatu beharko gara eta emakumeek gizarteratze eta laneratze programetan parte hartze izan ditzaketen eragozpenak sahiesteko mekanismo edo zerbitzu gehigarriak (haurtzaindegi zerbitzua esaterako) aurkitu eta martxan jarri.

IKTak txertatzeko modua proiektuan

Proiektu honen garapenerako oinarrizko IKTak erabili dira: Posta elektronikoa, sare sozialak, telefonoa eta web orrialdeak. Hala ere, prozesu osoan zehar hartzaileekin IKTen erabileraren gaineko lanketa modu transbertsalean egin da.

Beste aldetik, langabetu edota proiektu honen hartzaileei begira “brecha digitala”-ri aurre egiteko programak martxan jartzea aurreikusten da berraktibazio planean.

Euskara sustatzeko ekintzak

Proiektu honen hartzaile izango diren pertsonen euskaraz komunikatzeko gaitasun mugatua izaten dute gehienetan. Errealitate honetatik abiatuz oinarrizko lanketa egitea proposatzen da: a) Alde batetik, euskara enpleguratzeko gaitasun erantsi edo ezinbesteko bat dela adieraziz eta bide horretan sentsibilizazio lana eginez; b) Bestetik, gaur egun euskara ikasteko dituzten baliabideen (diru laguntzak, euskaltegiak...) gaineko informazioa emanez; c) Bukatzeko, zeharkako lanketa egin egunerekotasuneko harremanetan euskarazko oinarrizko kontzeptuak edo esaldiak txertatuz eta landuz.

Elkarlanaren eta prozesu parte-hartzaileen antolaketa



Programaren antolaketa 3.sektoreko entitate batekin egin da lehen momentutik, lankidetzan publiko-pribatu batean oinarritutako proiektua izan da beraz. Hala ere, garatutako proiektuaren hartzailerak izan diren pertsona taldearen parte hartzea tamalez ez da bereziki aktiboa izan. Batez ere, pertsona talde honek dituen berezitasunak eta zailtasunengatik.

Aurreikusitako ebaluazio, jarraipen eta neurketa sistema eta emaitzen aplikagarritasuna

Proiektuaren ebaluazio eta jarraipenari begira, koordinazio eta jarraipen bilerak eta neurketa sistema pertsonalizatuak (artatutako pertsona kopurua, baliabide soziolaboralen laneratze emaitzak, egondako esku-hartze kopurua...) jarri dira proiektuaren emaitzak neurtu eta baloratzeko, bai barne mailan eta bai kanpo pertsonalarekin. Beste aldetik, proiektuaren edo zerbitzuaren hartzailerak izango diren pertsonen begira, balorazio fitxa batzuk pasako dira zerbitzuaren kalitatea neurtu eta baloratu ahal izateko.

Erakunde, gizarte, lurralde balioztapena

Proiektu honek hurrengo eragile instituzional, ekonomiko eta sozialen balioztapena du:

- Eskualdeko sei udaletako enplegu teknikariak eta gizarte zerbitzuak
- Gizarteratze eta laneratze programen arduradunak
- Lanbide-SVEko eskualdeko bulegoa
- 3.sektoreko entitateak: Erroak, Sutargi, Daiteke, Zabalduz Koop., Secretariado Gitano...
- Eraldaketa Nodoko enpresak eta eskualdeko enpresak
- Lanbide Heziketak: EAGI
- Eragile sozialak: AMHER, Banaiz Bagara elkarteak, mugimendu feminista...

Proiektuaren dimentsioa eta hedadura

Proiektua Beterri-Buruntza eskualdeko ehun ekonomiko, instituzional eta sozialean garatuko da eta 200 pertsonatik gora (ber)orientatzea eta laneratzea espero da proiektu honen bitartez.



NORK

Proiektua garatuko duten erakundeak eta aurreikusitako lan taldea (gaitasunen profila barne):

a) Beterri-Buruntza Udalak. Lantalde teknikoa:

- Nerea Yurrebaso. *Koordinatzailea (100 ordu)*
- Hilario Dorronsoro. *Andoaingo Enplegu teknikaria eta eskualdeko Enplegu mahaiko dinamizatzailea (200 ordu).*
- Josune Mujika. *Usurbilgo Enplegu teknikaria eta eskualdeko baliabide diseinuaren arduraduna (80 ordu)*
- Jaione Iranzu. *Astigarragako Enplegu teknikaria (40 ordu)*
- Rosa Hernández. *Andoaingo Enplegu teknikaria eta eskualdeko pertsona zerbitzuaren arduraduna (20 ordu)*

b) Kanpo pertsonala: Inserzio Soziolaboraleko zerbitzua, aurtan zerbitzua Zabalduz kooperatiba elkartearen bidez gauzatuko da (1.570 ordu)

**AURREKONTUA**

Gastuaren kontzeptua / <i>Concepto del gasto</i>	2021	2022
BARNE PERTSONALA	11.515€	3.885€
Eskualdeko/Udaleko enplegu teknikariak (249/91 ordu)	8.715	3.185
Eskualdeko Koordinatzailea (80/20 ordu)	2.800	700
KANPO PERTSONALA	51.335€	26.024€
Enplegu sozialeko ekosistemaren dinamizazio eta koordinazio mantentzeko zerbitzua (551/201 ordu)	16.775	6.119
Inserzioa soziolaboraleko zerbitzuaren jarraipena (654/164 ordu)	19.560	4.905
Baliabideak (diru laguntzak eta bonoak)	15.000	15.000
Gastuak guztira / Total gastos	62.850€	29.909€
Diru-sarreraren kontzeptua / <i>Concepto del ingreso</i>	2021	2022
Aurreikusitako diru laguntza (GFA) / <i>Subvención prevista (DFG)</i>	51.335	26.024
Norbere erakundearen ekarpena / <i>Aportación de la propia entidad</i>	11.515	3.885
Diru-sarrerak guztira / Total ingresos	62.850€	29.909€